

Irakasleentzako orientabideak

SARRERA

Proposamen honek elikadura, osasuna eta hezkuntza ditu hizpide, baina oinarrizko eskubideak izan arren, munduko milioika pertsonentzat ez daude ziurtatuta. Bi funtsezko ideia daude. Lehenengoa da pertsona guztiek daukagula geure premiak aseta edukitzeko eskubidea, eta bigarrena, eskubide unibertsalak izan arren, bete gabe geratzen direla, baliabideak modu injustuan banatzen direlako.

HELBURUAK

- Munduko populazioaren zati handi batek, bereziki herrialde pobreenetan bizi den jendeak, elikadura-, osasun-, eta hezkuntza-premiak ez dituela aseta ezagutzea.
- Herrialde aberatsen eta pobreen arteko ezberdintasun batzuk identifikatzea.
- Oinarrizko eskubideak ase gabe edukitzeak dituen arrazoiak edo kausak eta horrek ekar ditzaketen ondorioak –pertsonalak zein kolektiboak– aztertzea.
- Munduan ezberdintasunaren arazoa konpontzeko alternatibak eta ekintza egingarriak bilatzea, arrazoiak sahiesten laguntzeko.
- Herrialde pobreetako pertsonak pairatu behar duten bizi-baldintza ez-duinak zuzenean edo zeharka konpontzen laguntzeko gogoeta egin, eta jarduera batzuetan modu pertsonalean inplikatzeko eta parte hartzeko jarrera erakustea.

EDUKIAK

Balioak, jarrerak eta arauak

Herrialde aberatsen oinarrizko premien erlatibizazioa.
Egoera injustuekiko jarrera kritikoa eta arbuioa.
Pertsonen iritzien eta sentimenduen balioespena.
Errespetua.
Lankidetzeta.
Parte-hartzea.
Arazoak justiziaz konpontzeko interesa.

Egitateak, kontzeptuak eta sistemak

Populazioaren zati handi batek bere oinarrizko premiak bete gabe dituela adierazten duten egoerak.
Elikadurari, osasunari eta hezkuntzari dagozkion Giza Eskubideak.
Oinarrizko eskubideak ase gabe dituzten herrialde batzuk eta kontinenteak.
Elikadurari, osasunari eta hezkuntzari dagozkion oinarrizko premiak berdin ez direla betetzen erakusten duten adierazleak.
Elikadura-, osasun- eta hezkuntza-premiak ase gabe edukitzeak dituen arrazoiak eta ekar ditzakeen ondorioak, pertsonalak naiz kolektiboak.

Prozedurak

Testu batzuk irakurri eta aztertu.
Datu estatistiko batzuk irakurri eta interpretatu.
Gafikoak irakurri.
Irudiak aztertu.
Eztabaida eta argudiaketa.
Kausen eta ondorioen arteko ezberdintasuna.
Dokumentuak idatzi.
Esperientziak hausnartu eta alderatu.

SAIOAK:

4 eskola-ordu. Proposamen hau bestelako jarduera batzuen abiapuntua izan daiteke; adibidez, aurkeztutako gaien inguruko mintegiak edo aste monografikoak, testu-luburuak gai batzuk sakontzea, diziplinartekotasunean jarduera batzuk zikloka garatzeko aukera, proposamen hau hizpide eta gai nagusitzat hartuz.

IKASKUNTZA-JARDUERAK

NIRE IRITZIZ...

Helburua: Gaia dela eta motibatu, eta alde aurreko ideiak azalera ekartzea.

Deskripzioa: Elikadura-, osasun- eta hezkuntza-premiak aseta edo ase gabe dituzten herrialdeei dagozkien leku edo egoerei buruz mintzatzen zaizkigun argazkien behaketa. Behatzen denari buruzko iritzi-ekarpina eta beste gaiei buruzkoa –adibidez, egoera horren kausak eta pertsonentzat eta herrialdeentzat etor daitezkeen ondorioak–.

Orientabideak: Asmoa da gerora landuko dituzten zenbait gai nagusiei buruzko eztabaida generikoa lortzea, hala nola egoera, kausa, ondorio, eta konponbide posibleei buruz. Bidezkoa litzateke irakasleak kausetara eta ondorioetara begiraraztea, ondokoak bezalako galderak egitea: zeintzuk izan daitezke populazioak premia horiek ase gabe edukitzeko kausa edo arrazoiak?, zer ondorio izan ditzake egoera horrek pertsonentzat?, zer ondorio ekar ditzake pertsona horiek bizi diren herrialdeentzako?

Oso kontuan hartu beharrekoa da arazoak herrialde pobreetan eta aberatsetan duen eragina, eta ezberdintasunak markatzea. Ondo legoke gela edo taldeko iritziak dokumentu batean biltzea, gero erabiltzeko edo.

PERTSONA GUZTIEK EZ DITUZTE OINARRIZKO PREMIA GUZTIAK ASETA

Helburua: Oinarrizko premien asetzeari dagokionez, munduan dauden ezberdintasunak identifikatzea.

Deskripzioa: Testu baten irakurketa, eta gaiari dagozkion bi galdera nagusiei emandako erantzunetan agertzen diren ideia nagusiak kolorez nabarmentzea.

Orientabideak: Gai hau galdera nagusietan ez dagoen arren, irakasleak pobrezia eta aberastasunaren globalizazioa nabarmendu beharko luke. Hau da, pobreak herri garatuetan eta ez garatuetan daudela, alegia. Gaiari buruz argazkiak atera edo jasotzea iradoki daiteke (gero erabiltzeko, jakina). Bakarka egindako lana batera jarriko da. Garrantzitsua da saioaren amaieran ideiak argi geratzea.

NOLA SENTITUKO ZINAKE PROTAGONISTA IZANGO BAZINA?

Helburua: Oinarrizko eskubideak ase gabe dituzten pertsona batzuen kasu batzuk aztertzea, eta ikasleek bizi duten egoerarekin alderatzea. Herrialde pobreetan oinarrizko eskubidetzat jotzen dena erlatibizatzea.

Deskripzioa: Testu-irakurketa eta kasu bakoitzean aurkeztutako pertsonen ase gabe dituzten premia-motak identifikatzea. Herrialde aberatsetako ikasleen bizimoduarekin alderatu eta gogoeta egin, eta ikasleak aurkeztutako egoeratan biziko balira sortuko liratekeen sentimenduak kontuan hartu.

Orientabideak: Herrialde aberatsetako haurrek aseta dituzten premiak konparatu eta aztertu odoren, enpatia sortu beharko litzateke. Ikasleek lehentasunak markatu beharko litzateke, eguneroko bizitzan oinarrizko premia modura hartzen direnen artean.

PENTSATZEKO GRAFIKO BATZUK

Helburua: Populazioak aseta dauzkan premiak kontuan hartuz, herrialde aberatsen eta pobreen artean dauden ezberdintasunak identifikatzea.

Deskripzioa: Oinarrizko premia batzuen asetzeari gertatzen diren ezberdintasun batzuei buruzko datu estatistikoak behaketa. Erauzi nahi den ezberdintasunari buruzko gogoeta.

Orientabideak: Jarduera hau bakarka edo talde txikietan egin beharko litzateke. Gero, batera jarri.

AZTERTZEKO DATU BATZUK

Helburua: Ezberdintasunak eta Giza Eskubideen Deklarazioak esaten dutena alderatu.

Deskripzioa: Herrialdeen sailkapena, kontinenteen arabera.

Giza Eskubideen Deklarazioaren artikulua batzuen irakurketa, eta artikulua bakoitzari dagozkion datu estatistikoak eta grafikoen esleipena, eskubide horiek ez direla betetzen azalduz.

Orientabideak: Irakasleak arazoaren dimentsio kolektiboa nabarmendu beharko luke. Jarduera horrek eragiketa matematikoak egiteko bidea ematen du.

ARRAZOIAK

Helburua: Herri pobreetan oinarrizko eskubideak ez betetzeko dauden arrazoi batzuk identifikatzea.

Deskripzioa: Testu baten irakurketa eta arrazoiak kolore ezberdinetan nabarmendu, zein oinarrizko premiari dagozkion kontuan hartuta.

Orientabideak: Agian, irakasleak kausa zer den azaldu beharko luke, eta testuan agertzen den kausaren bat hobeto esplikatzen ere bai.

PERTSONENTZAKO ONDORIOAK

Helburua: Elikadura-, osasun- eta hezkuntza-premiak ase gabe edukitzeagatik pertsonen izan ditzaketen ondorio batzuk identifikatzea.

Deskripzioa: Testu baten irakurketa eta pertsonentzat larriena iruditzen den ondorioa aukeratzea.

Orientabideak: Agian, irakasleak ondorioren bat azaldu edo garatu beharko du, ikasleen testuinguruan gertatzen diren adibideak emanez. Argigarri izango litzateke, ikasleek ondorio horiek noraino bizi behar dituzten kontuan hartzea eta horri buruz gogoeta egitea.

HERRIALDEARENTZAKO ONDORIOAK

Helburua: Populazioak oinarrizko premiak ase gabe edukitzeak ekar ditzakeen ondorio batzuk identifikatzea.

Deskripzioa: Herrialdearentzat etor daitezkeen ondorio batzuei buruzko ideia-zaparrada eta laburpen-koadro batekin konparaketa egin, non aipatutako ondorioak seinatu beharko dituzten eta zein premiatik sortzen den edo diren.

Orientabideak: Ekarrirako ideiak kontuan hartuz, zerrenda bat egin daiteke. Ondoren, konparaketa-lana bakarka ala talde txikietan egin daiteke. Arazoekiko ikuspegi individualista edo oso subjektiboa alde batera utzi beharko litzateke, eragin kolektiboetan zentratuz, eta pertsona bizi den testuinguruak beren bizitzak baldintzatzen dituztela adierazi, horiek aldatzea oso garrantzitsua baita.

EMAN DEZAGUN...

Helburua: Herrialdeetako agintari ekonomiko zein politikoek egin ditzaketen ekimenei buruz gogoeta egitea.

Deskripzioa: Simulazio-jokoa, zeinean bi aditu-batzordetan banatzen den gela, bata herrialde pobreei dagokiona, eta bestea, herrialde aberatsei dagokiena. Bi batzorde horien eginkizuna herrialde horietan egin daitezkeenaz pentsatzea da. Emaitzak azaldu, eztabaida egin eta dokumentuak idatzi.

Orientabideak: Ikasleek arazoak konpontzeko alternatibak seinatu behar dituzte. Garrantzitsua da elkarrizketa egiten eta argudioak ematen saiatzea.

ZER IKASI DUT?

Helburua: Ikasitakoaren ideia nagusiak laburbildu eta egindako prozesuaz gogoeta egitea.

Deskripzioa: Ikasitako oinarrizko ideiak hartuz, koadro bat bete, zein jarduerak eginez ikasi duten eta zein momentutan ikasi duten seinatu.

Orientabideak: Koadro hau baliagarria izan daiteke ondoko jarduera egiteko. Garrantzitsua da ikasle bakoitzak bere gogoeta pertsonala egin izana. Denen ekarpenak bilduz, horma-irudi bat egin daiteke. Mapa kontzeptuala ere egin daiteke, eta hasierako jardunean eman ziren ideiekin alderatu.

ETA GUK NOLA LAGUN DEZAKEGU?



Helburua: Gogoeta egin eta norberaren inplikazio-jarrerak bultzatzea. Lortutako ezaguerak aplikatzea.

Deskripzioa: Talde txikietan bilduta, modu indibidualan edo taldeka egiteko ekintza batzuk aipatu, zeinak milioika pertsonen bizi dituzten bizi-baldintzak hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen. Aipatutako ekintza horietakoren bat burutu.


Orientabideak: Norberak egindakoaren balioa eta ekintza horrek arlo kolektiboan duen eragina nabarmendu (ideiak banatu, kolektiboek laguntza eman, erakusketak, idatziak, boluntariora, etab.). Eragiteko bi modu daudela nabarmendu: arazoa dagoen tokian bertan, edota zeharka, ideiak hedatuz, injustizia-egoerekiko kontzientzia hartuz, etab.

Bigarren mailako hezkuntzako 1. zicloa

DENOK DAUKAGU ESKUBIDEA



BAINA MILIOIKA PERTSONA BESTE BALDINTZATAN BIZI DIRA



Egilea: José Palos



PERTSONA GUZTIEK EZ DITUZTE OINARRIZKO PREMIAK ASETA

Irakur ezazu testu hau, eta aurreko esaera baieztan duten esaerak kolorez nabarmendu

Pobrezia, hau da, ondasunak modu ezberdinean banatuak izatearen ondorioa, oztopo nagusia da pertsona guztiek beren oinarrizko premiak –elikadura, osasuna eta hezkuntza– asetuak edukitzeko. Horrela adierazten du Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak. Herrialde aberatsen eta pobreen arteko ezberdintasuna geroago eta handiagoa dela esaten den arren, egiatan, aurrerakuntza teknologikoek eta aberatsenen borondate onak ezberdintasun horiek laburtu egin ditzakete. Nazio Batuen Erakundeak emandako datuen arabera, gaizki elikatutako 800 milioi pertsona daude munduan, 250 milioi haur lan-esku modura erabiltzen dira, 1000 milioi pertsona helduk ez dute edateko urik. Herrialde pobreetan pertsona oso aberatsak dauden arren, eta herri aberatsetan pobreak ere badauden, bizitza duina izateko baldintza egokiak ez dituzten gehienak herrialde pobreetan bizi dira.

Zein da oztopo nagusia pertsona guztiek beren oinarrizko premiak aseta eduki ditzaten?

NOLA SENTITUKO ZINAKE ZU IZANGO BAZINA PROTAGONISTA?

Gaur dituzun gauzetatik zein irudituko zitzaizukeen garrantzi gutxikoa?



© Jenny Matthews

Eskolara doan bakarra naiz nire familian

11 urte dauzkat, eta nire familia oso ugaria da. Nire anaia-arrebetatik ni bakarrik joaten naiz eskolara. Besteak ez dira inoiz joaten, harria zulatzen lan egin behar dute. Eskolara nonean –mahai zaharrak dituen barrakoi bat da nire eskola– 2 orduz ibili beharra daukat. Asko ikasten dut eskolan eta pozik ibiltzen naiz, denak batera gaudelako, txikiak eta handiak. Batzuetan irakaslea ez dator, gaixorik jartzen delako. Batzuek diote gutxi ordaintzen diotelako gertatzen dela hori.

Botika gutxi dauzkagu

Ni buztinezko eta lastozko etxe batean bizi naiz, dabilen urik gabe eta argi elektrikorik gabe. Bero egiten duenean, eltxo asko daude eta, batzuetan, ziztatzen digutenean, oso gaixotasun arriskutsua ekartzen digute, paludismoa. Botikak erosteko dirurik ez daukagunez, nire izekoa hil egin zen orain hilabete batzuk. Batzuetan gaixorik jartzen gara, iturrietatik eta errakastoetatik hartutako ura edateagatik. Ospitalea edo medikua oso urrun daude eta, sarri askotan, belarrez egindako botikak hartuta sendatzen gara.



© Internón Oxfam



© Geoff Sayer / Oxfam

Gehienetan gauza bera jaten dugu

Nire familian, denok ordu asko sartzen ditugu landarean. Eguna amaitzean, oso nekaturik egoten gara, oso lan gogorra delako, bero handia egiten duelako eta janaria eskasa delako. Artoa jaten dugu, barazki batzuk, platanak... Jaietan, hegazti-haragia jaten dugu edo heizan harrapatutako zerbait, eta oso-oso gozoa izaten da. Baina uzta txarreko aldietan, edota kafea oso gaizki ordaintzen digutenean, landareak eta sustrai jangarriak hartzera joaten gara, bizirauteko.

PENTSATZEKO DATU BATZUK

Ezberdintasun hauetatik zeintzuk erausi beharko liratekeen berehala denen artean eztabaidatu





	Herri aberatsenak	Herri pobreenak
Medikuak 10.000 biztanleko	25	7
1 urteko haurren hilkortasuna 1000 jaioberriko	6	72
+15 urteko pertsona heldu analfabeto 100 biztanleko	1	31
Edateko ura daukatenak 100 biztanleko	100	70

Zifra horiek orokorrak dira, herrialde guztiak batera hartuz, baina ez du esan nahi herrialdeek banaka harturik hilkortasun berbera dutenik edota mediku-kopuru berbera 10.000 biztanleko.

AZTERTZEKO GRAFIKO BATZUK

Bila ezazu zein kontinenteri dagozkion herrialde hauek eta batu kontinenteka.

Zein da kasurik harrigarriena? Zergatik?



Testu hauek Giza Eskubideei buruzko artikuluetatik aterata daude. Azal ezazu zein grafikok adierazten duen betetzen ez den eskubidea

Giza Eskubideei buruzko testua	Eskubide horiek herrialde guztietan ez direla betetzen adierazten duen grafikoaren izenburua
25 art. Pertsona orori dagokio eskubidea, bai berari bai eta bere familiari, osasuna eta ongizatea ziurtatzeko, bereziki elikadura, osasun-zerbitzua eta behar diren gizarte-zerbitzu guztiak.	
26 art. Pertsona orok du hezkuntza izateko eskubidea. Oinarrizko instrukzioa doakoa izango da.	

ARRAZOIAK

Irakur ezazu ondoko testu hau, eta puntu bakoitzari dagozkion arrazoiak kolorez azpimarratu:

- elikagairik ez edukitzea.
- osasun-zerbitzuen falta edo eskura edukitzeko ezintasuna.
- oinarrizko hezkuntzarik ez edukitzea.
- beste arrazoi batzuk.

Zaila da herrialde pobreek oinarrizko premiak ase gabe edukitzearen arrazoiak lerro gutxitan idaztea. Oro har, baliabide-faltarekin zer ikusia duela esan daiteke, nekazaritza-ekoizpenean edo medikuen formakuntzan eta ospitaleak eta eskolak eraikitzean ezin inbertituarekin. Ospitalerik ez dagoenez, ez medikurik, ez eskola nahikorik, denek ezin dute oinarrizko osasun-zerbitzurik eskuratu, eta haur guztiak ezin dira eskolara joan. Beste kasu batzuetan, arrazoiak beste nonbait bilatu behar dira, adibidez, nekazariak ezin dutela hazien prezioa edota ekoizten dituzten elikagaien prezioa erabaki eta, ondorioz, nekazaritzatik ateratzen duen etekina oso eskasa dela.

Bitxia eta ulertezina da oinarrizko premia horiek asetzeko ez inbertitzea, armak salerosten eta publizitatean milioiak eta milioiak sartzen direnean.



Pertsona guztien bizitzak ez du berdin balio

PERTSONENTZAKO ONDORIOAK

Irakur ezazu testu hau eta idatzi, zure ustez, zein den pertsonentzako ondoriorik larriena

Norbaitek ez badu jateko nahikorik, aukera asko ditu gaixorik jartzeko, osasun-arazoekin hazteko, lanari edo ikasketari etekina ateratzeko arazoak edukitzeko, eta, ziurrenik, jatekoa edozein modutan bilatzeko arriskua. Pertsonak ez badaukate osasun-zerbitzu egokirik, gaixorik jartzeko eta gaixotasunak larriagotzeko arrisku gehiago dituzte, lan egokia egiteko zailtasunak areagotuz. Ondorioz, baliabide gutxiago ekarriko dizkiote familiari, eta, oro har, beren etorkizuna itxaropen gutxikoa izango da. Pertsonak ez badaukate oinarrizko hezkuntza izateko modurik, murriztu egiten dira beren garapen-aukerak, bai lanari dagokionez, bai eta gizarte-erakundeetan parte-hartzeari dagokionez.

Elikadura nahikorik ez edukitzeagatik:

Osasun-zerbitzurik ez izateagatik:

Oinarrizko hezkuntzarik ez izateagatik:

HERRIARENTZAKO ONDORIOAK

Zuen ustez, zer ondorio izan dezake herri batentzako, bertako populazioak elikadura-, osasun- eta hezkuntza-premiak ase gabe edukitzeak? Egin zerrenda bat, gelako iritzi guztiak bilduz.

Azpiko koadro honetan agertzen den zerrenda honetatik, esan zeintzuk datozen bat zuen iritziekin eta zein onarritako premiari dagozkion. (elikadura = 1; osasuna = 2; hezkuntza = 3)

Herriarentzako ondorioak	(Bai/Ez)	Ase gabeko premia
Gaizki elikatutako populazioa edukiko du.		
Elikagaiak beste herrialdetan erosi beharko ditu.		
Gaixotasun edo/ta epidemia gehiago izango dira.		
Mediku eta botika gehiago behar izango ditu.		
Hilkortasunak gora egingo du.		
Ekoizpen-gaitasun gutxiago izango du.		
Teknologia berriak aplikatzeko zailtasun handiak izango ditu.		
Munduko ekonomiako partaide izateko zailtasunak izango ditu.		
Berezko irtenbide ekonomikoak aurkitzeko mugak izango ditu.		
Jendeak mugak izango ditu gizarte demokratikoa eraikitzen parte hartzeko.		
Biolentzia, lapurreta, haur-esplotazio, barneko gatazka beliko eta kontrol polizial gehiago izango ditu.		
Diktadoreek gobernatua izateko posibilitate gehiago izango ditu.		
Armatan egindako gastuek gora egingo dute.		
Elikagaiak, lana, segurtasuna eta askatasuna dauden tokietara migratuko du populazioak.		

EMAN DEZAGUN...

Pentsa dezagun zer egin dezakegun herrialde aberatsetan zein pobreetan bizi garenok egoerari buelta emateko. Aurreko jarduerako informazioa erabil dezakezue

Eman dezagun gelako erdia herrialde aberatsenetako aditu-talde bat dela, eta beste erdia herrialde pobreenetakoa. Talde bakoitza bere aldetik bilduko da, eta egin daitekeenaz pentsatuko du, mundu guztia inplikatur, eta, bereziki, aginte handiagoa daukatenak. Talde bakoitzak dokumentu bana idatziko du, egin dituen proposamenak bilduz, eta beste taldeari erakutsiko dio, eztabaidatzeko asmoz. Proposamen batzuk elkarren kontrakoak izango dira agian, baina hitz egitea da kontua, bi taldeen helburua berbera baita. Azkenik, talde bakoitzeko ordezkari pare batek dokumentu bateratua idatziko dute.



ZER IKASI DUT?

Idatz itzazu esaera batzuk, ikasitakoa bilduz eta zein jardueratan ikasi duzun esanez

HAUXE IKASI DUT:

ONDOKOA EGITEN IKASI DUT: